

Kultur agenda

Azaroak 21 ostirala
Azaroak 30 igandea

Kurosawaren "Ergela" filma euskaraz

Fedor Dostoievski idazle errusiarren "Ergela" eleberrri entzutetsua oinarri harturik, izenburu bereko filma errodatu zuen Akira Kurosawak 50eko hamarkada hasieran. Okinawako erietxe batean denbora luzea igaro ondoren, etxera itzuli da Kinji Kameda. Bidean, Denkichi Akama ezagutuko du, eta haren adiskide egingo da. Akama, baina, Kamedaren emaztearekin maiteminduko da. Drama zirraragarria da. Antzoki Zaharrean izango da ikusgai "Ergela" filma asteaz-

kenean, hilak 26, 20.15ean. Jatorrizko hizkuntzan eta euskaraz azpititulaturik eskainiko dute filma.



"Kontenedore baten istorioak" Lugaritzen

Maskarada taldeak "Kontenedore baten istorioak" antzezlan eskainiko du azaroaren 27tik 30era bitarte Antiguako Lugaritz kultur etxean, 20.30ean. Hilaren 27an eta 29an euskaraz eskainiko da antzezlan. Hilaren 28 eta 30ean gazteleraz. Patxo Telleria eta Mikel Martinez antzezleek jokatzen dituzte rol nagusiak. Theodor eta Lionel Zabor gizajeok aspaldi ahaztu zuten pertsonak izan zirela. Zabor kontenedoretan sartu eta solasean ari dira. Zaborra jasoko duen kamioiaren zain.



Ismael Serrano Kursaal Auditorioan



Ismael Serrano kantautore madrildarrak "Principio de incertidumbre" zuzeneko diskoaren abestiak eskainiko ditu Kursaal Auditorioan larunbatean, hilak 22, 20.00tan. Letra konprometituz josita daude Vallecascas auzoko kantautorearen abestiak.

Haur antzerkia Altza Kultur etxean

"Muzikiren Bidaia Harrigarria" antzezlan eskainiko du Pok Produksioak taldeak Altza kultur etxean, larunbatean, hilak 22, 18.00etan.

Olatz Beobide antzezleak Muziki pertsonaia-
ren rola jokatzen du haurrei zuzendutako antzezlari irudimentsu honetan. Muziki pertsonaiak munduan barrera egindako bidaien berri dakarkie haurrei, hainbat txokotako musika lagun. Pascal Gaigne mu sikariak konposatu du ikuskizunerako musika.

